

EAEKO 2005EKO AURREKONTUAK Aurtengoen tankerakoak, NEOLIBERALAK ETA ANTISOZIALAK

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politika neoliberal da, eta orain arteko irizpide bereberiei eusten die. Hona hemen Jaurlaritzaren kosta ahala kosta, lortzen saiatzen den hiru helburu nagusiak: aurrekontuaren superabita, zor publikoa (eskasa, bestalde) murriztea eta gastuari eustea, gastu sozialari batik bat.

Enpleguari eta Lanbide Hezkuntzari dagokionez, ez du esleitu Jaurlaritzak diru nahikorik ez esku-men gehiago bereganatzeko, ez Lan Harremanen Euskal Esparrua, bertako Babes Soziala eta Euskal Esparru Sozioekonomikoa garatzeko.

2004an, hutsaren pareko defizita zeukaten urte hasieran EAeko aurrekontuek (469.000 euro, 7.135 milioi euroko gastuarekiko, hau da, aurrekontuaren % 0,006 eta Barne Produktu Gordinaren % 0,00009). Urtea amaitzerako, 180 milioi euroko superabit bihurtu da minidefizit hura. 2005erako, berriz, 570.697 euroko defizita aurreikusten da, 7.663 milioi euroko gastuarekiko. Zenbatekoa izango da urte-amaierako superabita?

Jaurlaritzak dioenez, aurrekontuen % 72 gastu sozialerako erabiltzen da. Ez du esaten, ordea, urterik urte ari dela jaisten osasun- eta hezkuntza-alorretako gastuak. Adibide bat: Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3,5eraino jaitsi da hezkuntza-arloko gastu publikoa (Europako batezbestekoa % 5 da). Baina esleitutako diru-kopurua bezain garrantzitsua da diru horren erabilera, eta horretan ere lehengo bidetik dabilta gauzak: izugarritzako dirutzak ematen dizkio Jaurlaritzak ekimen pribatuari, gutxieneko kontrol publikorik bermatu gabe. Bestalde, oinarrizko hainbat zerbitzu publiko (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...) privatizatzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Etxebizitzari dagokionez, inondik ere ez du bermatzen EAeko aurrekontuak bizilekurik izateko herritarrok omen daukagun eskubi-dea: aurrekontuaren % 2 besterik ez etxebizitza-politikari.

Zerbitzu sozialik eza, bestalde, emakumezkoek nabaritzen dute gehienbat, haiei egokitzen baitzaie gehienetan senitarteko helduak edo ezinduak zaintzea, baita eskolara hasi ez diren haurrak ere.

Emakumeek, gainera, gizonekoek baino proportzio handiagoan pairatzen dute pobrezia.

Hortaz, ez zuten poz handirik hartuko aurrekontu hau ikustean diru-sarrera txikiak eta premia handiak dituztenek, Oinarrizko Errenta eta Gizarte Beharrian Larrietarako Laguntzak (GBLL) jasotzen dituztenek. Oinarrizko Errenta (OE) Lanbide Arteko Soldataren % 81etik %84,5era igo da, egia da, baina, hala ere, pobrezia-atalasearen oso azpitik dago. Beraz, Oinarrizko Errenta besterik jasotzen ez duenak ezingo du duintasunez bizi. GBLLei dago-kienez, ez du ezer asko konponduko 5 milioi euroko igoerak (25 milioitik 30era), izugarriko aldea baitago behar sozialen eta horiek asetzeko ematen den diruaren artean. Ikusteko dago, gainera, emango duten azkenik 5 milioiko igopera hori. Jaurlaritzak ez du bete, beraz, emandako hitza, alegia, 35 milioi eurokoa izango zela alor horretarako aurrekontua 2005ean.

Gure zerga-sistemaren bidegabekeria, berriz, bost axola zaie foru-diputazioei eta Eusko Jaurlaritzari. Dagokiena baino askoz ere gutxiago ordaintzen dute enpresaburuek eta profesionalek. Bi sektore horietan dihardutenek 10.300 euroko errenta deklaritzen dute, batez beste; soldatapeko langile bakoitzak, berriz, 17.000 euroko errenta deklaritzen du, batez beste. Zerga-iruzurra izurritea bezala hedatu da EAEn; sozietateen gaineko zerga, aldiz, salbuespen harrigarri ari da bihurtzen, horrenbeste desgrabazio eta hobari dela eta.

ELA LAB ESK STEE-EILAS

Horregatik guztiagatik, ez dugu onartzen EAEko 2005eko aurrekontua. Ez gatoz bat, inolaz ere, zerbitzu publikoen pribatizazioarekin (gero eta nabarmenagoa), lan-harremanen ezegonkortasunarekin (batez ere administrazio publikoan), eta hau eskatzen diegu EAEko Legebiltzarrari eta Gobernuari:

- Ez onartzea aurrekontuak.
- Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren mailara igotzea Oinarrizko Errenta, eta esku-bidetzat finkatzea Gizarte Beharrian Larrietarako Laguntzak.
- Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hilean 800 eurokoa izatea.
- Gastu soziala igotzea, pixkanaka, Europako batezbestekora iritsi arte hezkuntzan, osasunean eta etxebizitzan.
- Behar den dirua gastatzea euskalduntze-prozesuan eta euskararen normalizazioan.
- Industria eta enplegu-plan eraginkorra eratzea.
- Aukera-berdintasuna egiazki bultzatzeko politikak abiaraztea.
- Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzea.

PRESUPUESTOS DE LA CAPV PARA 2005

Continuistas, neoliberales y ANTISOCIALES

ELA LAB ESK STEE-EILAS

La política presupuestaria del Gobierno de la CAPV es continuista y neoliberal. Se basa en un celo exagerado por alcanzar el superávit presupuestario, recortar la exigua deuda pública y en la contención del gasto, especialmente el gasto social.

En materia de empleo y Formación Profesional, no se asignan los recursos necesarios para asumir las competencias ni para avanzar en la configuración del Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social, ni en el desarrollo del Espacio Socio-económico Vasco.

En 2004 los Presupuestos presentados reflejaban un déficit ridículo (469.000 sobre 7.135 millones de euros de gasto, el 0,006% del Presupuesto y el 0,00009% del PIB) que se va a convertir en un superávit de 180 millones de euros. En 2005, el déficit previsto es de 570.697 sobre unos gastos de 7.663 millones de euros. ¿Cuánto será el superávit a final de año?

Dice el Gobierno que el 72% de los Presupuestos se destina a gasto

social. Pero no dice que el gasto público en sanidad y educación viene retrocediendo año tras año. Valga como ejemplo que el gasto público en Educación ha disminuido hasta el 3,5% del PIB mientras la media europea está en el 5%. Tan importante como la cantidad presupuestada es la distribución que de esa cantidad hace. La administración sigue entregando a la iniciativa privada ingentes cantidades de dinero sin garantizar un mínimo de control público. Se consolida, poco a poco, el proceso de privatización de los servicios públicos esenciales (sanidad, educación, y servicios sociales). Igualmente se calla el Gobierno que su Presupuestos siguen sin garantizar el derecho a la vivienda (sólo se destina el 2% del Presupuesto a la política de vivienda).

La falta de derechos sociales perjudica especialmente a las mujeres. Ellas tienen que correr con el exceso de trabajo que supone cuidar a las personas dependientes y a las niñas y niños sin escolarizar, y son las que más sufren la pobreza.

Las personas con menores ingresos y mayores necesidades, las que dependen de la Renta Básica y las Ayudas de Emergencia Social (AES), pocas alegrías tendrán con estos Presupuestos. Aunque la RB pase del 81% del SMI al 84,5% del SMI, todavía estaría muy por debajo del umbral de pobreza e impedirá que la gente sin recursos lleve una vida digna. En cuanto a las AES, que seguirán siendo una ayuda y no un derecho subjetivo, el crecimiento de la dotación presupuestaria en 5 millones de euros (caso de producirse, porque el Presupuesto es de 25 millones de euros ampliable a 30), no supondrá nada, habida cuenta del desfase existente entre la demanda y los recursos escasísimos para atenderla. Esto supone el incumplimiento del compromiso público de llegar a los 35 millones para 2005.

La despreocupación de las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco por la injusticia tributaria en que está metido nuestro sistema fiscal es absoluta. Los empresarios y profesionales pagan muchísimo menos que lo que deberían pagar. La renta declarada de éstos es de 10.300 euros, frente a los 17.000, de media, declarados por las y los trabajadores. Mientras tanto, el fraude fiscal campa a sus anchas y el impuesto de sociedades se está convirtiendo en una rareza con tanta desgravación y bonificación.

Por todas estas razones, rechazamos los presupuestos de la CAPV para 2005. Nos oponemos rotundamente a la cada vez mayor privatización de los servicios públicos, la precarización de las relaciones laborales, en general, y en la administración pública, en particular, y exigimos del gobierno y del parlamento de la CAPV:

- El rechazo de estos presupuestos.
- Incrementar la renta básica al nivel del S.M.I. y establecer las AES como un derecho subjetivo.
- Salario Mínimo Interprofesional de 800 euros mensuales.
- Incrementar progresivamente el gasto social hasta alcanzar la media europea (educación, sanidad y vivienda).
- Dotación presupuestaria necesaria para la euskaldunización y normatización lingüística.
- Un Plan efectivo de política industrial y empleo.
- Políticas reales de igualdad de oportunidades.
- Construcción de un Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social que dé respuesta a las demandas de las trabajadoras y trabajadores.